

KOSTUEN EGITURA

Enpresa bat aurrera eramateko beharrezkoa da kostuen egitura finkatua edukitzea. Gure kasuan, nahiko erraza da kalkuluak egitea, argi baitauekagu zeintzuk diren funtsezko baliabideak, jarduerak eta ezarri nahi ditugun elkartzeko edo itunak. Enpresa batetik bi kostu mota ditu : alde batetik kostu batzuk beti izango ditu enpresak, finkoak. Beste kostu batzuk ez dira behin betikoak, aldakorak, eta kostu huen balioa ere aldatu daiteke.

Horrez gain, enpresak Kostuak minimizatzen bideratzen dira, horretarako aukera dagoen enpresaren sail guztietan. Eta lortu nahi dutena da kostu-egitura ahalik eta murriztuen mantentzea, prezio baxuetan oinarritutako politika komertzialak erabilita. Kostuak minimizatzen saiatze da, izan ere, gero eta kostu gutxiago eduki, gero eta etekin gehiago jasoko ditugu.

Enpresaren diru sarrerak, iturri ezberdinetatik etorriko dira. %80-a iragarkietatik eta orokorrean, publizitatetik jasoko dugu, 12.000 € izango dira gure aurreikuspenen arabera. Ondorengo diru sarrera iturria harpidetza prima izango da, bertatik, enpresaren diru sarreraren %20-a jasoko dugu. Ondoren, enpresako gastu guztiak eraman ahal izateko mailegu bat eskatzeko beharretan ikusten dugu geure burua, horregatik 3500€-ko mailegu bat eskatuko dugu.



Guztira, 18.500€ izango ditugu proiektua aurrera eramateko.

Kostuak bi motatakoak izan daitezke: aldakorak eta finkoak. Hauek ezaugarri desberdinak dituztelako dira desberdinak. Kostu aldakorrei dagokionez, ekoizpen mailarekin proportzionak diren kostuak dira. Esaterako, lehengaiak, lana, energia kontsumoa... Berriz, kostu finkoak ekoizpen kopurua aldatzen baldin bada ere aldatzen ez diren kostuak dira. Adibidez, lokalaren alokairua, makinaren amortizazioa, ekoizpen instalazioen kostua... Enpresa guztiak kostuak minimizatzen saiatzen dira baina batzuk kostuekiko menpekotasuna daukate. Kostu finkoekiko dute enpresek menpekotasuna, beti baitaute kostu horiek.

Gure kasuan, edukiko ditugun kostuak honako hauek dira. Alde batetik, gure enpresa forma hartzen hasten denean, diru sarrerak lortzen hasiko gara, hortaz,

gure soldatak ordaintzen hasiko gara eta 1400€-koak izango dira. Bestalde, lan egingo dugun ofizinaren alokairua ordaindu beharko dugu, eta 400€-koa izango dela gutxi gora behera aurreikusten dugu. Gainera, hasiera batean 2055€ inbertituko ditugu lanean aritzeko materiala lortzeko, besteak beste, ordenagailuak, mahiak eta aulkiak. Bukatzeko, hilabetero 156,75€ ordaintzen joango gara bi urtetan hasierako mailegua ordainduta geratzeko, beti ere interesak kontuan izanik. Hauek kostu finkoak dira, nahitaez ordaindu beharko ditugu.

Horrez gain, alde batetik, gure kostu aldakorra kostu bakar batean biltzen da nagusiki, hain zuzen ere, argindarrean. Nahiz eta ez izan ohikoa zenbaki hori argindar kostu batentzat, gure bulegoa txiki bat izateak eta erabilera mugatua izateak ahalbidetzen du hori posible izatea. Bestalde, bestelako kostu aldakorrak ditugu, horien artean, edozein teknologia arazoan aurrean konponbideak.



Laburbilduz, 5.000€-ko etekina lortuko dugu gutxi gora behera. Kostua aldakorrak, kostu finkoak eta diru-sarrerak kontuan edukita.

Diru-sarrerak	
Publizitatea →	12.000€ %80
Harpidetza prima →	3.000€ %20
Mailegua*	→ 3500€
Guztira	→ 18.500€

Kostuak
Finkoak:



Soldatak → 1400€
Alokairua → 400€
Inbertsioak* → 2055€
Mailegua → 156,75€
Aldakorrak:
Argindarra → 90€
Bestelakoak → 100€
Guztira → 9.801,75€